# MEMORIA 2017

**Sareen** sarea

**Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala**
Tercer Sector Social de Euskadi



## 1- NOR GARA

- Sareen Sarearen deskribapena
- Kide diren sareak
- Eginkizuna, ikuspegia eta balioak
- Antolamendua (Egitura)

## 2- ZER EGIN DUGU 2017AN

2.1. Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala indartu eta dinamizatu
- Partekatuz
- EHSS Sustatzeko Estrategiak landu dugu
- HSSk eskaintzen duen balioa aztertu dugu
- Gero eta ordezkagarritasun handiagoa lortu dugu

2.2. Gobernantza eta eragin proaktiboa
- Elkarrizketa Zibileko mahaiak babestu ditugu
- Sektore sozialak EKESen duen ordezkaritza koordinatu dugu
- EHSSren ahotsa Legebiltzarrera eraman dugu
- Politika publikoetan eraginez
- Ekimen publikoko foroetan parte hartuz

2.3. Hirugarren sektore soziala kokatzea euskal gizartean
- Euskadiko hirugarren sektore sozialaren eguna ezarriz
- EHSS sustatzeko urteko kanpaina antolatuz
- Sektorerako informazio interesgarria hedatuz
- Komunikabideetan oihartzuna izanez
- Beste eragile sozial batzuekin harremanetan

## 3. KONTUAK ARGI

## 1-QUIENES SOMOS

- Descripción de Sareen Sarea
- Redes asociadas
- Visión, misión y valores
- Organización (estructura)

## 2-QUÉ HEMOS HECHO EN 2017

2.1. Fortalecer y dinamizar el tercer sector social de Euskadi
- Compartiendo
- Trabajando la estrategia de promoción del TSSE
- Estudiando el aporte de valor del TSS
- Ganando representatividad

2.2. Gobernanza e incidencia proactiva
- Apoyando a las mesas de diálogo civil
- Coordinando la representación del sector social en el CESV
- Haciendo oír la voz del TSSE en el parlamento
- Incidiendo en las políticas públicas
- Participando en distintos foros de iniciativa pública

2.3. Posicionar al tercer sector social en la sociedad vasca
- Instituyendo el día del TSSE
- Organizando una campaña anual de promoción del TSSE
- Divulgando información de interés para el sector
- Haciéndonos eco en los medios de comunicación
- Relacionándonos con otros agentes sociales

## 3. CUENTAS CLARAS

# 1-NOR GARA

## SAREEN SAREAREN DESKRIBAPENA

Sareen Sarea Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeak biltzen dituen elkartea da. 2014ko apirilaren 8an eratu zen ofizialki, sorrera prozesua urte batzuk lehenago hasi bazen ere, Euskadiko Elkarrizketa Zibileko Mahaian.

Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeak sakabanatuta eta erabat zatikatuta aritu izan dira historikoki. Azken urteetan, ahaleginetan ari dira sareak eta federazioak osatzeko, horiei esker presentzia, aitortza, elkarrizketa gaitasun eta eragin politiko handiagoa izango baitute.

Hainbat jardute eremutan eta lurraldetan egin dituzte ahalegin horiek.

Sareen Sarea jardute eremuak eta lurraldeak bateratzeko lan horren adierazpen nagusia da. Euskadiko Hirugarren Sektore Sozial osoa elkartzeko jaio da.

Helburutzat du gizarte justuagoa eta solidarioagoa lortzea, kohesionatuagoa, partaidetzari garrantzi handiagoa emango diona, kritikoa izango dena pertsonak ardatz hartu beharrean alderdi ekonomikoari gehiegi erreparatzen dion egungo garapen ereduarekin, ahalmen handiagoak izango dituena lankidetzaren bidez eraikitzeko proposamenak eta alternatibak, eta horrela aurrera egingo duena gizarte eredu gizatiarrago baterantz.

## KIDE DIREN SAREAK

2017an, 14 sare hauek bildu ditu:

# 1-QUIENES SOMOS

## DESCRIPCIÓN DE SAREEN SAREA

Sareen Sarea es la asociación que agrupa a las redes de entidades del Tercer Sector Social de Euskadi. Se constituye formalmente el 8 de abril de 2014, aunque su proceso de gestación se inicia años antes en la Mesa de Diálogo Civil de Euskadi.

Las organizaciones del Tercer Sector Social de Euskadi han constituido históricamente una realidad dispersa y atomizada. Durante los últimos años están realizando un esfuerzo para articularse en redes y federaciones que ayuden a ganar presencia, reconocimiento, capacidad de interlocución e incidencia política.

Estos esfuerzos se han realizado desde distintos ámbitos de actuación y en distintos territorios.

Sareen Sarea es la máxima expresión de esta convergencia entre ámbitos y entre territorios. Nace para agrupar a todo el Tercer Sector Social de Euskadi.

Surge para avanzar a una sociedad más justa y solidaria, más cohesionada y más participativa, más crítica con un modelo de desarrollo, excesivamente orientado a lo económico y no centrado en las personas, y con más capacidades para construir, de forma colaborativa, propuestas y alternativas, avanzando hacia un modelo de sociedad más humano.

## REDES ASOCIADAS

En 2017 agrupa a las siguientes 14 redes:

## IKUSPEGIA

Sareen Sareak ezaugarri hauek izan nahi ditu:

Gizarteak Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala elkartzen duen erreferentziatzat antzeman dezala lortu nahi du.
Arlo sozial eta politikoko eragile guztiengan eragina izateko eta haiekin elkarrizketatzeko ahalmena izan nahi du.
Gizarte justua, kohesionatua, inklusiboa, solidarioa, parekidea, parte hartzailea eta demokratikoa eraikitzen lagundu nahi du. Inklusio soziala, bizi kalitatearen hobekuntza eta giza eskubideen erabilera eraginkorraren babesa sustatu nahi ditu.
Mesede egin nahi dio sektorearen egituraketari, Hirugarren Sektore Sozial indartsuagoa eta kohesionatuagoa izateko, aniztasun guztiei erantzungo diena.

## EGINKIZUNA

Elkartearen eginkizuna da gizarte kohesionatu, inklusibo, solidario eta parte hartzailea sustatzea, pertsona guztien eskubideak modu berean errespetatuko dituena eta arreta berezia jarriko duena biztanle ahulenengan; horrez gainera, guztien ongizatearekiko eta eraldaketa sozialarekiko konpromiso aktiboa bultzatu nahi du herritar ororengan.

Sareen Sareak Hirugarren Sektore Sozial bateratua, indartsua eta aitortua egituratu nahi du, eragile sozial eta instituzional guztiengan eragina izateko eta haiekin guztiekin elkarrizketatzeko gaitasuna izango duena.

## BALIOAK

**Elkartasuna:** Pertsona ahulenen eskubideekiko erantzukizuna.

**Eraldaketa**: Erantzukizuna eta konpromisoa eraldaketa sozialarekiko eta eskubideen aldarrikapen nahiz babesarekiko, herritarren partaidetza eta erantzukizun aktiboa sustatuz.

**Gardentasuna**: erantzukizuna Sareen Sarearen kudeaketan, gardentasunez jokatuz erabakiak hartzean eta informazioa erabiltzean, eta kide diren erakundeei, administrazio publikoei, eragile sozialei eta gizarteari informazio hori eskuratzeko aukera bermatuz.

## VISIÓN

Sareen Sarea aspira a ser:

Reconocida por la sociedad como el referente y aglutinadora del Tercer Sector Social de Euskadi;
Con capacidad de incidencia e interlocución con los distintos agentes del ámbito social y político;
Que contribuye a la construcción de una sociedad justa, cohesionada, inclusiva, solidaria, igualitaria, participada y democrática.
Que promueve la inclusión social, la mejora de la calidad de vida y la defensa del ejercicio efectivo de los derechos de las personas;
Que aporta a la estructuración del sector para tener un Tercer Sector Social más fortalecido y cohesionado atendiendo a toda su diversidad.

## MISIÓN

Promover una sociedad cohesionada, inclusiva, solidaria y participativa en la que se respeten los derechos de todas las personas por igual, con especial atención a aquellas más vulnerables, e impulsar el compromiso activo de toda la ciudadanía con el bienestar colectivo y la transformación social.

Sareen Sarea trabaja por la vertebración de un Tercer Sector Social agrupado, fuerte y reconocido, con capacidad de incidencia e interlocución con todos los agentes sociales e institucionales.

## VALORES

**Solidaridad**: Responsabilidad con los derechos de las personas más desfavorecidas.

**Transformación**: responsabilidad y compromiso con la transformación social, la reivindicación y la defensa de los derechos promoviendo la participación y la responsabilidad activa de la ciudadanía.

**Transparencia**: Responsabilidad en la gestión de Sareen Sarea siendo transparentes en la toma de decisiones y con el manejo de la información, garantizando el acceso a la misma a las organizaciones miembro, a las administraciones públicas, a los agentes sociales y a la sociedad.

**Kooperazioa** Hirugarren Sektoreko erakundeen artean eta erakundeekin, administrazioarekin eta herritarrekin, helburu komunak eta aurreikusitako eginkizuna betetzen direla bermatzeko.

**Aniztasuna**: Sareen Sarearen baitako aniztasuna eta sektoreko aniztasuna onartzea, eta horren ordezkagarritasuna bermatzea barne demokraziaren eta partaidetzaren bidez.
Independentzia pentsamenduan eta ideologian, eta independentzia instituzional, politiko eta ekonomikoa, ez arriskuan jartzeko eragile sozialekiko elkarrizketa eta eragina.

**Demokrazia**: eginkizuna eta ikuspegia oinarritzat harturik, erabakiak erantzukizun partekatuarekin eta partaidetza bidezkoa eta inklusiboa sustatuz hartzea, kide guztiek onartutako diskurtsoak, jarrerak eta akordio inklusiboak lortzeko.

**Autonomia** eta errespetua sare bakoitzaren errealitatearekiko nahiz Sareen Sarearen diskurtso, posizio eta aldarrikapenarekiko, guztion interesen alde lan eginez.

**Cooperación** entre y con las entidades del Tercer Sector, la administración y la ciudadanía, a fin de garantizar el cumplimiento de los objetivos comunes y la misión prevista.

**Pluralidad**: Reconocimiento de la diversidad en el seno de Sareen Sarea y el reconocimiento de la diversidad del sector, garantizando su representatividad a través de la democracia interna y la participación.

**Independencia** en pensamiento e ideología, independencia institucional, política y económica para no comprometer su diálogo e influencia con los agentes sociales.

**Democracia**: promoción de la responsabilidad común y la participación equitativa e inclusiva en el enfoque a la misión y visión y la toma de decisiones para alcanzar discursos, posicionamientos y acuerdos inclusivos respetados por todos los miembros.

**Autonomía** y respeto a la realidad de cada red y al discurso, posición y reivindicación de Sareen Sarea, en un trabajo por los intereses comunes.






**BILTZAR NAGUSIA**:
Biltzar Nagusia erakundeko erabaki organo gorena da. Urtean behin biltzen da gutxienez, eta bazkide diren erakunde guztiek osatzen dute.

**ZUZENDARITZA BATZORDEA**:
Zuzendaritza Batzordea elkartearen interesak zuzendu, kudeatu eta ordezkatzen dituen gobernu organoa da, eta Biltzar Nagusiak emandako xedapen eta gidalerroen arabera lan egiten du. Bazkide diren erakundeek baino ezin dute parte hartu gobernu organoan. Zuzendaritza Batzordea bazkide diren erakunde

**ASAMBLEA GENERAL**:
La Asamblea General de Sareen Sarea es el máximo órgano de decisión de la institución. Se reúne al menos una vez al año y está integrada por la totalidad de las entidades socias.

**JUNTA DIRECTIVA**:
La Junta Directiva es el órgano de gobierno que dirige, gestiona y representa los intereses de la asociación, de acuerdo con las disposiciones y directivas de la Asamblea General. Sólo podrán formar parte del órgano de gobierno las entidades socias. La Junta Directiva estará integrada por la totalidad

guztiek osatzen dute, eta eurek aukeratutako pertsona fisiko batek ordezkatzen ditu. Gutxienez hiru hilean behin bildu behar dute, eta jarduera sozialak behar bezala garatzeko beharrezkoa den guztietan. Normalean, hilean behin biltzen dira.

**EKAINAREN 13KO BILTZAR NAGUSITIK AURRERA, HONAKO HAUEK OSATZEN DUTE ZUZENDARITZA BATZORDEA:**

- FEVAS, Adimen urritasuna duten pertsonen aldeko Euskadiko Elkarteen Federazioa. Ordezkaria: Pablo González Gutiérrez. PRESIDENTEA
- HIREKIN, Euskadiko Gizarte Ekimeneko eta Esku Hartzeko Entitateen Federazioa. Ordezkaria: Iñigo Vidaurrazaga Vidal. PRESIDENTEORDEA
- ONCE Euskadi. Ordezkaria: Javier Domínguez Entenza. IDAZKARIA
- FEDEAFES, Buru gaixotasuna duten pertsona eta senide elkarteen Euskadiko federazioa. Ordezkaria: Mª José Cano Mesías. DIRUZAINA
- ASTIALDI SAREA, Euskal Herriko haur, nerabe eta gazteekin gizarte esku hartzean eta aisialdi hezitzailean diharduten erakundeen sarea. Ordezkaria: Jose Alberto Vicente Ochoa. BATZORDEKIDEA
- EAPN EUSKADI, Pobrezia eta gizarte bazterketaren aurkako europar sarea Euskadin. Ordezkaria: Alfonso López Martínez. BATZORDEKIDEA
- EHLABE, Euskal Herriko Lan Babestuaren Elkartea. Ordezkaria: Pablo Moratalla Santamaría. BATZORDEKIDEA
- ELKARTEAN, Euskal Autonomia Erkidegoko Gutxitasun Fisikoa eta/edo Organikoa duten Pertsonen Konfederazio Koordinatzailea. Ordezkaria: Mikel Malcorra Ochotorena. BATZORDEKIDEA
- FEDERPEN, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko pentsiodunen eta erretiratuen lurralde elkarteen federazioa. Ordezkaria: Txema Odriozola Azurmendi. BATZORDEKIDEA
- GIZATEA, Gizarteratzeko eta Laneratzeko Euskadiko Enpresen Elkartea. Ordezkaria: Esteban Rivas Calzada. BATZORDEKIDEA
- HARRESIAK APURTUZ, Etorkinen aldeko Euskadiko GKEen Koordinakundea. Ordezkaria: Teresa Maura Barandiaran. BATZORDEKIDEA

de entidad socias, representadas por una persona física de su elección. Deberán reunirse al menos trimestralmente y siempre que lo exija el buen desarrollo de las actividades sociales. Normalmente se reúne una vez al mes.

**INTEGRAN LA JUNTA DIRECTIVA A PARTIR DE LA ASAMBLEA GENERAL DE 13 DE JUNIO:**

- FEVAS, Federación Vasca de Asociaciones en favor de las personas con discapacidad intelectual. Representante Pablo González Gutiérrez. PRESIDENTE
- HIREKIN, Asociación de entidades de iniciativa e intervención social de Euskadi. Representante Iñigo Vidaurrazaga Vidal. VICEPRESIDENTE
- ONCE Euskadi. Representante Javier Domínguez Entenza. SECRETARIO
- FEDEAFES, Federación de Euskadi de asociaciones de familiares y personas con enfermedad mental. Representante Mª José Cano Mesías. TESORERA
- ASTIALDI SAREA, Red de organizaciones para la intervención social y la educación en el TL con infancia y adolescencia de Euskal Herria. Representante Jose Alberto Vicente Ochoa. VOCAL
- EAPN EUSKADI, Red Europea de lucha contra la pobreza y la exclusión social en Euskadi. Representante Alfonso López Martínez. VOCAL
- EHLABE, Asociación de Entidades de Trabajo Protegido de Euskadi. Representante Pablo Moratalla Santamaría. VOCAL
- ELKARTEAN, Confederación Coordinadora de Personas con Discapacidad Física y Orgánica del País Vasco. Representante Mikel Malcorra Ochotorena. VOCAL
- FEDERPEN, Federación Territorial de Asociaciones Provinciales de pensionistas y jubilados de Álava, Gipuzkoa y Bizkaia. Representante Txema Odriozola Azurmendi. VOCAL
- GIZATEA, Asociación de Empresas de Inserción del País Vasco. Representante Esteban Rivas Calzada. VOCAL
- HARRESIAK APURTUZ, Coordinadora de ONG de Euskadi de Apoyo a Inmigrantes. Representante Teresa Maura Barandiaran. VOCAL

- HIRUKIDE, Euskadiko Kide Ugariko Familien Elkarteen Federazioa. Ordezkaria: Natalia Diez-Caballero Alonso. BATZORDEKIDEA
- LARES Euskadi, Zaharren egoitzen eta adineko pertsonen harrera zerbitzuen euskal erakundea – esparru solidarioa. Ordezkaria: Mikel Mirena Agirrezabal Ondarra. BATZORDEKIDEA
- REAS Euskadi, Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea. Ordezkaria: Carlos Askunze Elizaga. BATZORDEKIDEA

**LAN BATZORDEAK**:
Lan batzordeak Zuzendaritza Batzordeak proposatuta sortzen dira, eta helburutzat dute Biltzar Nagusiak onartutako ekintza lerroak garatzea. Batzorde horiez gain, unean-unean beste lantalde batzuk ere eratzen dira, Zuzendaritza Batzordeak proposatuta, gai jakin batzuk lantzeko.

- Komunikaziorako eta Sentsibilizazio Sozialerako batzordea
- Eragin Politikorako Batzordea
- Barne Sendotzerako Batzordea

**LANTALDEAK:**

- Legegintza garatzeko taldea

**TALDE TEKNIKOA:**

- Koordinazioa: Mikel Barturen Nuño
- Idazkaritza teknikoa: Eva García Gonzálvez

- HIRUKIDE, Federación de Asociaciones de familias numerosas de Euskadi. Representante Natalia Diez-Caballero Alonso. VOCAL
- LARES Euskadi, Asociación vasca de residencias y servicios de atención a los mayores – sector solidario. Representante Mikel Mirena Agirrezabal Ondarra. VOCAL
- REAS Euskadi, Red de Economía Alternativa y Solidaria. Representante Carlos Askunze Elizaga. VOCAL

**COMISIONES DE TRABAJO:**
Las comisiones de trabajo se crean a propuesta de la Junta Directiva y tienen la misión de desarrollar las líneas de acción aprobadas por la Asamblea General. Además de estas, también se crean puntualmente grupos de trabajo a propuesta de la Junta Directiva para desarrollar determinados temas.

- Comisión de Comunicación y sensibilización social
- Comisión Incidencia Política
- Comisión Fortalecimiento Interno

**GRUPOS DE TRABAJO:**

- Grupo de desarrollo legislativo

**EQUIPO TÉCNICO:**

- Coordinación: Mikel Barturen Nuño
- Secretaría técnica: Eva García Gonzálvez



# 2. ZER EGIN DUGU 2017AN

## 2.1 Euskadiko hirugarren sektore soziala indartu eta dinamizatu

Sareen Sarearen asmoa da Euskadiko Hirugarren Sektore Sozial osoa elkartu, egituratu eta indartzea, sareen sare bat eraikitzeko; sare horrek bertako kide direnen jardute eremuak eta ahots espezifikoak errespetatuko ditu, baina gai izango da, halaber, diskurtso partekatu bat sortzeko, eta ezagutzera emango ditu sektorearen balioak eta hark egiten duen eraldaketa soziala. Kide guztien parte hartze aktiboa eta inklusiboa izango du horretarako.
Sareen Sareak Euskadin Hirugarren Sektore Sozialaren esparruan (desgaitasuna, gizarteratzea, adineko pertsonak, familia, garapenerako lankidetza, etab.) diharduten sare eta erakundeen arteko kooperazioa dinamizatu eta sustatzen du, helburutzat harturik Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala erreferentziazko eragile sozial bihurtuko duten sinergiak sortzea. Hortaz, Sareen Sareak eragile politiko, sozial eta instituzionalen solaskide nagusia izan nahi du, gizarte ongizatearekin eta giza eskubideekin batik bat pertsona ahulenen eskubideekinzerikusia duten gai guztietan.
Hirugarren sektore sozialaren egituraketa bera ere indartu nahi du, bigarren eta hirugarren mailako erakunde sareak batuz, eta mesedetu nahiz bultzatu egin nahi du elkarrizketa zibila gizarte zibilaren eta sektore publikoaren artekoa–, baita sektore eta eragile sozial desberdinen arteko elkarrizketa ere.



# 2. QUÉ HEMOS HECHO EN 2017

## 2.1 Fortalecer y dinamizar el tercer sector social de euskadi

Sareen Sarea aspira a agrupar a todo el Tercer Sector Social de Euskadi, a estructurarlo y fortalecerlo, a construir una red de redes respetuosa con los ámbitos y las voces específicas de las redes miembro, capaz de generar un discurso compartido, altavoz de los valores del sector y la transformación social que este realiza, con la participación activa e inclusiva de todos sus miembros.

Desde la estructura de Sareen Sarea se dinamiza y promueve la intercooperación entre las redes y entidades que trabajan en el ámbito del Tercer Sector Social en Euskadi: discapacidad, inclusión social, personas mayores, familia, cooperación al desarrollo, etc. para generar sinergias que conviertan al Tercer Sector Social de Euskadi en un agente social de referencia. El interlocutor por excelencia de los diferentes agentes políticos, sociales e institucionales en todos aquellos asuntos que afecten a los derechos de las personas, con especial atención a las más vulnerables, y al bienestar social.

Fortalecer la propia estructuración del tercer sector social, mediante la convergencia de sus redes de organizaciones de segundo y tercer nivel, facilitar e impulsa tanto el diálogo civil de la sociedad civil con el sector público como el diálogo de los diferentes sectores y agentes sociales.



## PARTEKATUZ

2017an, Zuzendaritza Batzordeak 10 bilera egin ditu, eta Biltzar Nagusiak, berriz, 2 saio.

2017an zehar, aurrera egin dugu sendotze lanekin, egituraketarekin eta barne antolamenduarekin lotutako gaietan: 2016-2019 aldirako Plan Estrategikoa eta Komunikazio Plana hedatu ditugu, eta Barne Erregimeneko Araudiaren zirriborroa prestatu dugu. Horren guztiaren helburua egungo nahiz etorkizuneko beharrekin eta kide diren erakundeen gorakada mailakatuarekin bat datorren egitura bat antolatzea da.

Gaur egun, sareak eta jardute eremuak harremanetan jartzen dituzten hainbat batzorde daude Sareen Sarean, eta hirugarren sektore sozialari lotutako era askotako gaiak lantzen dira horietan. Honako hauek dira:

**Eragin Politikorako Batzordea**:
6 saretako ordezkariek osatzen dute, eta 6 aldiz bildu da, hirugarren sektore sozialaren jardunarekin lotutako alderdiak identifikatu, lehenetsi, eztabaidatu eta adostu ahal izateko eta beste eragile sozial eta politiko batzuekiko elkarrizketa ezartzeko.

**Barne Sendotzerako Batzordea**:
4 saretako ordezkariek osatzen dute. 14 aldiz bildu da, helburutzat harturik hirugarren sektore soziala indartzea eta egituratzea, eta EAEko hiru lurraldeetan barne kohesioa lortzea.

**Komunikaziorako eta Sentsibilizazio Sozialerako Batzordea:**
Kide diren erakundeetako 4 ordezkarik eta Sareen Sarea erakundeko talde teknikoak osatzen dute. 8 aldiz bildu da, Sareen Sareak ezarrita duen eginkizuna erdiesteko beharrezkoak diren barne nahiz kanpo komunikazioak diseinatu, gainbegiratu eta ebaluatzeko.

Denboran zehar finkatutako batzorde horiez gainera, beste lantalde espezifiko batzuk ere badaude, landu beharreko gaien arabera ad hoc sortuak. 2017an, Legegintza Garatzeko Taldea egon da aktibo, eta 12 bilera egin ditu bi gai hauek jorratzeko: Europako zuzentarauak Espainiako Sektore Publikoko Legean sartzeko modua eta euskal administrazio publikoak ekimen sozialeko erakundeekin duen itun erregimenaren garapena, erantzukizun publikoko zerbitzuak eta prestazioak sortzeko Euskadin.

## COMPARTIENDO

Durante 2017 hemos celebrado 10 reuniones de la Junta Directiva y 2 Asambleas Generales.

En este año hemos avanzado en temas de fortalecimiento, estructuración y organización interna como son el despliegue del Plan Estratégico 2016-2019 y del Plan de comunicación y la elaboración del borrador de Reglamento de Régimen Interno, para organizar una estructura acorde a las necesidades presentes y futuras y al crecimiento escalonado en el número de entidades asociadas.

Las comisiones inter-redes e inter-ámbitos actualmente existentes en Sareen Sarea para trabajar los diversos asuntos vinculados al tercer sector social son:

**Comisión de Incidencia política:**
Conformada por representantes de 6 redes, se ha reunido en 6 ocasiones para poder identificar, priorizar, debatir y consensuar los asuntos vinculados a la actividad del tercer sector social y establecer la interlocución con otros agentes sociales y políticos.

**Comisión de Fortalecimiento Interno:**
Formada por representantes de 4 de las redes, se ha reunido en 14 ocasiones para lograr su objetivo de fortalecer el tercer sector social, su vertebración y cohesión interna en los tres territorios de la CAV.

**Comisión de Comunicación y sensibilización social:**
Conformada por 4 representantes de las entidades socias y el equipo técnico de Sareen Sarea, se ha reunido en 8 ocasiones para diseñar, supervisar y evaluar las acciones comunicativas internas y externas necesarias para alcanzar la misión de Sareen Sarea.

Además de estas comisiones consolidadas en el tiempo, existen otros grupos de trabajo específicos ad hoc de acuerdo a la vigencia de los temas que les dan origen. En 2017 esta activo el Grupo de Desarrollo Legislativo que ha tenido 12 reuniones de trabajo sobre dos asuntos: la transposición de las directivas europeas a la ley española de contratos del sector público y el desarrollo del régimen de concertación de la Administración Pública vasca con las entidades de iniciativa social para la gestión de los servicios y prestaciones de responsabilidad pública en Euskadi.

## EHSS SUSTATZEKO ESTRATEGIA LANDU DUGU

Sareen Sareak EHSS Sustatzeko Estrategia onartzeko prozesuan parte hartu du. Prozesu garrantzitsua izan da, eta espainiar Estatuan hirugarren sektore soziala sustatzeko lehenengo plangintza estrategikoa.
Eusko Jaurlaritzaren EHSSren Legearen agindu bati erantzuteko onartu da Estrategia hori, EHSSrekin lankidetzan, eta prozesua Euskadiko Elkarrizketa Zibileko Mahaiak bultzatu du. Sareen Sareak prozesu osoan parte hartu du, sektoreko sareak eta erakundeak koordinatzen, proposamenak aurkezten eta Eusko Jaurlaritzarekin dokumentuak, horien edukiak eta aplikazio faseak adosten.

Lehenengo fasean, bi lantegietan parte hartu genuen, martxoaren 21ean EHSSko erakundeekin egindakoan, eta martxoaren 23an sareekin egindakoan. Eta hirugarren lantegi bat ere izan zen, apirilaren 24an, hura ere sareekin egina planteamenduen informazioa eta garapena erkatzeko. Ekainean, urrian eta azaroan beste bilera batzuetan parte hartu genuen, zirriborroan jasota geratuko ziren 34 esku hartzeak adosteko eta horien lehentasuna zehazteko. Azaroaren 28an onartu zuen Estrategia Elkarrizketa Zibileko Mahaiak.

## TRABAJANDO LA ESTRATEGIA DE PROMOCIÓN DEL TSSE

Sareen Sarea ha participado en el proceso de aprobación de la Estrategia de Promoción del TSSE, un hito relevante y el primer planeamiento estratégico de promoción del tercer sector social en el Estado español.
La aprobación de dicha Estrategia atiende a un mandado de la Ley del TSSE al Gobierno Vasco, con la colaboración del TSSE, y cuyo proceso de ha impulsado desde la Mesa de Diálogo Civil de Euskadi, con la participación de Sareen Sarea a lo largo del mismo en labores de coordinación de las redes y entidades del sector, presentando propuestas y acordando con el Gobierno Vasco los documentos, sus contenidos y las fases de aplicación.

Participamos en los dos talleres en primera fase, uno con las entidades del TSSE el 21 de marzo y otros con las redes el 23 de marzo. Y un tercer taller con las redes el 24 de abril para contrastar la información y desarrollo de los planteamientos. En junio, octubre y noviembre participamos en reuniones para consensuar las 34 actuaciones contenidas en el borrador y la priorización de las mismas en su ejecución, antes de la aprobación de la Estrategia en la Mesa de Diálogo Civil el 28 de noviembre.



## HIRUGARREN SEKTORE SOZIALAK ESKAINTZEN DUEN BALIOA AZTERTU DUGU

2017an, Sareen Sareak kide diren erakunde eta sare guztiek partekatzen duten planteamendu bat eraiki nahi izan du Euskadiko hirugarren sektore sozialak euskal gizarteari egiten dion ekarpenaren gainean.

Azterketa horretan, sistema bat adostu nahi izan da, eta horren bidez identifikatu, baloratu eta sustatu egin ahal izango da bai hirugarren sektore sozialeko erakunde bakoitzak gizarteari eskaintzen dion balio osoa, baita esku hartze sozialeko zerbitzuen hornikuntzan duen balio erantsia ere.

Sendotze Batzordearen bilerez gain, apirilaren 5ean lan jardunaldi bat egin zen sare eta erakundeekin, autoebaluazioko adierazleei buruz hitz egiteko.

## GERO ETA ORDEZKAGARRITASUN HANDIAGOA LORTU DUGU

2017an abiarazi da Euskadiko Garapen Lankidetzarako GKEen Koordinakundea Sareen Sarean sartzeko prozesu formala.

## 2.2 Gobernantza eta eragin proaktiboa

Sareen Sarearen lerro estrategikoetako bat da modu aktiboan parte hartzea eta eragitea politika publikoetan eta ongizatearen eredu sozialaren defentsan, eta elkarrizketarako guneak sustatzen ditu horretarako.

Sareen Sareak euskal administrazioekin eta kanpo administrazioekin lotutako hainbat kontseilu, organo eta elkarrizketa foroetara zabaltzen du eremu publikoan eragiteko lana. Beharrezko elkarrizketak izaten ditu administrazio publikoekin, xedetzat harturik elkarrizketa zibila indartzea eta EHSSko erakunde guztien ideiak eta ekarpenak helaraztea, kontuan har ditzaten politika sozialen diseinuan, legeen garapenean eta erantzukizun publikoko gizarte zerbitzuen plangintzan nahiz kudeaketan, besteak beste.

Azken batean, gizarte zibil antolatuak gobernantzan eta gizarte

## ESTUDIANDO EL APORTE DE VALOR DEL TERCER SECTOR SOCIAL

Sareen Sarea ha trabajado este año en la construcción de un planteamiento compartido por las organizaciones y redes miembros sobre la contribución del tercer sector social de Euskadi a la sociedad vasca.

El estudio pretende acordar un sistema que permita identificar, valorar y potenciar tanto el valor total que cada organización del tercer sector social aporta a la sociedad, como el valor añadido en la provisión de servicios de intervención social. Y busca un sistema de autoevaluación y mejora continua para cada entidad en relación a ambos valores.

Las reuniones de trabajo de la Comisión de Fortalecimiento se han acompañado de una jornada de trabajo el 5 de abril con redes y entidades sobre los indicadores de autoevaluación.

## GANANDO REPRESENTATIVIDAD

En 2017 se inicia el proceso formal de incorporación de la Coordinadora de ONG de cooperación al desarrollo de Euskadi a Sareen Sarea.

## 2.2 Gobernanza e incidencia proactiva

Sareen Sarea tiene entre sus líneas estratégicas participar e incidir de manera activa en las políticas públicas y en la defensa del modelo social de bienestar potenciando los espacios de diálogo e interlocución.

Sareen Sarea despliega este trabajo de incidencia e interlocución en el ámbito público en diferentes consejos, órganos y foros de diálogo con las administraciones vascas y del exterior. Mantiene las interlocuciones necesarias con las administraciones públicas, para fortalecer el diálogo civil y hacer llegar las ideas y aportaciones del conjunto de entidades del TSSE, en el diseño de políticas sociales, en el desarrollo legislativo, en la planificación y gestión de servicios sociales de responsabilidad pública, etc.

En definitiva, contribuye a incorporar a la sociedad civil organizada a la gobernanza, a la participación en el debate y

politiken gaineko eztabaidan nahiz erabakietan parte hartzea mesedetzen du, eta sektore publikoarekiko lankidetza bultzatzen du, demokrazia aurreratuko eredua sustatzeko asmoz.

## ELKARRIZKETA ZIBILEKO MAHAIAK BABESTU DITUGU

Sareen Sareak babesa eman die Euskadiko Elkarrizketa Zibileko Mahaian parte hartu duten sareei eta hortik sortutako lan batzordeei, eta koordinatu ere egin ditu.

## SEKTORE SOZIALAK EGAB-EN DUEN ORDEZKARITZA KOORDINATU DUGU

Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialak ordezkari bat du Euskadiko Kontseilu Ekonomiko eta Sozialean (EGAB). Sareen Sareak koordinatzen du ordezkaritza lan hori EHSSko sare eta erakundeekin.

## LEGEBILTZARRERA ERAMAN DUGU

Maiatzaren 3an, Legebiltzarreko presidenteak, Bakartxo Tejeriak, Sareen Sarea erakundeko presidentea eta koordinatzailea hartu zituen legebiltzarrean.

toma de decisiones sobre las políticas sociales, y a colaborar con el sector público para impulsar un modelo de democracia avanzada.

## APOYANDO A LAS MESAS DE DIALOGO CIVIL

Sareen Sarea ha prestado apoyo y coordinación a las redes participantes en la Mesa de Dialogo Civil de Euskadi y a las comisiones de trabajo derivadas de ella.

## COORDINANDO LA REPRESENTACION DEL SECTOR SOCIAL EN EL CESv

El Tercer Sector Social de Euskadi tiene un representante en el Consejo Económico y Social vasco (CESv). Sareen Sarea coordina la labor de representación con las redes y organizaciones del TSSE.

## HACIENDO OIR LA VOZ DEL TSSE EN EL PARLAMENTO

El 3 de mayo, la presidenta del Parlamento, Bakartxo Tejeria, recibe al presidente y al Coordinador de Sareen Sarea en sede parlamentaria.



Sareen Sareak eskatuta, maiatzaren 11n Eusko Legebiltzarrak ahobatezko adierazpen bat egin zuen, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari babesa eta aitortza adierazteko lehen aldiz. Bertan, sektorearekiko elkarrizketa eta lankidetzarako bideak finkatzeko eskatu zien Eusko Jaurlaritzari nahiz tokiko administrazioei, eta herritarrei, berriz, atxikipena, babesa eta partaidetza areagotzeko.

## POLITIKA PUBLIKOETAN ERAGINEZ

2017an Sareen Sareak esku hartu duen estrategia, plan, lege eta dekretu nagusiak hauek dira:

**A) EHSS sustatzeko estrategia**

Gobernuarekin bilerak egin dira, eta horietatik atera ziren hauek: EHSSren estrategia, estrategiari buruzko oinarrizko dokumentu batean, azaroan onartua; 2018-2020 legealdiko plana, lehenetsitako 12 jarduerekin; eta 2018ko urteko plana.

**B) Diru Sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Legea**

- Eragin Batzordea Sareen Sarea Diru Sarrerak Bermatzeko eta Gizarterako 12/2008 Legearen erreformaren aurrean agiria lantzen ari da, Zuzendaritza Batzordeak ekainean onartua.
- Agiria uztaileko Euskadiko Elkarrizketa Zibilaren Mahaian aurkeztu zen. Mahaiak onartu egin zuen agirian jasotako eskaera, gaia lantzeko Batzorde Misto bat sortzeari buruzkoa.
- SSk Legebiltzarreko taldeei bidali zien agiria.
- Azaroan, Legebiltzarrean hitz egiteko eskaera egin genuen.

**C) 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa; lege horren bidez Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen dira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko zuzentarauak**.

- Europako zuzentarauak Espainiako legedira ekartzearen emaitza alderdi gakoa da Espainiako estatuko hirugarren sektore sozialerako, erantzukizun publikoko esku hartze sozialeko zerbitzuen kontratazio erregimenari eragiten baitzion, baina baita gizarte ekimeneko eta irabazi asmorik

A instancias de Sareen Sarea el Parlamento Vasco realiza el 11 de mayo una declaración unánime de apoyo y reconocimiento al Tercer Sector Social de Euskadi por primera vez, instando al Gobierno Vasco y las administraciones locales a consolidar los cauces de diálogo y colaboración con el sector y a la ciudadanía a aumentar su adhesión apoyo y participación con el TSSE.

## INCIDIENDO EN LAS POLITICAS PUBLICAS

Las principales estrategias, planes, leyes y decretos sobre las que ha intervenido Sareen Sarea en 2017 son:

**A) Estrategia de Promoción del TSSE**

- Reuniones con Gobierno de las que emana la organización de la Estrategia del TSSE en un documento marco de estrategia, que se aprueba en noviembre; el Plan de Legislatura 2018-2020, con las 12 actuaciones priorizadas; y el Plan anual 2018.

